

[Eusk/Cast] Martxoaren 3aren hitzaldia egin dute Bultzak eta Askatasun Haizeak

LA HAINE _ EUSKAL HERRIA :: 03/03/2021

Martxoaren 3aren harira JARDUN-en parte diren bi antolakundeak elkarrekin martxan jarritako dinamikari amaiera jarri diote.

[Otsailaren 27an](#) Gernikako Merkurio plazan kontzentrazioa burutu ondoren 20 bat pertsona bildu dituen hitzaldia antolatu dute Bultza herri ekimenak eta Askatasun Haizeak Bilboko Santutxu auzoko Karmelan. Bertan, Martxoaren 3an eroritako beharginak gogora ekartzearekin batera, borroka horren kontestualizazioa egin da, hau langile borrokak eta alternatiba iraultzailearen eraikuntzak sortzen duten jazarpenaren erakusle gisa azaldu da. Hizlariaren arabera “aldarrikapenak erantzun bortitza dute kapitalaren aldetik”. Era berean, borroka koiunturalak ez izateko antolakuntza derrigorrezko elementu gisa azpimarratu da.

Hori eginda, egungo testuingurua eta garaikoa alderatu dira, gaur egun langileriak lan alorrean antolatzeke baliatzen dituen bitartekari eta markoen (sindikatuak, langile autodefentsa sareak, langabetu asanbladak...) analisia burutu delarik. Horren ondoren, hitzaldira bertaratutakoen arteko solasaldia zabaldu da.

Hau ez da JARDUN-eko antolakundeak Martxoaren 3aren harira burutzen ari diren dinamika bakarra. JARKI antolakunde iraultzaileak “Langile antolakuntza eta klase borroka atzo eta gaur” hitzaldia burutu ondoren [otsailaren 25ean](#), bihar, martxoaren 4an “[Emakume langilea martxoaren 3aren borrokan](#)” hitzaldia burutuko du Gasteizko Aldabe gizarte etxean 18:30ean.

[Castellano]

Las dos organizaciones, que son parte de JARDUN, han concluido la dinámica que emprendieron de manera conjunta entorno al 3 de Marzo.

Tras la concentración realizada el [27 de febrero](#) en la plaza Mercurio de Gernika, Bultza y Askatasun Haizea han organizado una charla que ha reunido a unas 20 personas en el el espacio Karmela del barrio Bilbaino de Santutxu. Allí, además de traer a la memoria a los trabajadores caídos el 3 de Marzo, se ha realizado una contextualización de dicha fecha, usándola como ejemplo de represión a la que es sometida la lucha obrera y los intentos de conformar una alternativa revolucionaria. Según el orador “las reivindicaciones padecen una respuesta brutal por parte del capital”. Además de eso, se ha recalcado la necesidad de la organización para evitar que las luchas tengan carácter coyuntural.

Una vez hecho eso, se ha realizado una comparativa de la coyuntura actual y de entonces, para realizar a posteriori un análisis de los medios que emplean hoy en día los trabajadores

a la hora de organizarse en el ámbito laboral (sindicatos, redes de autodefensa laboral, asambleas de parados...).

Después de esto, se ha dado un coloquio entre los participantes a la charla.

Esta no es la única dinámica que están llevando a cabo las organizaciones que pertenecen JARDUN. La organización revolucionaria JARKI realizó el pasado 25 de febrero una charla bajo el título “organización obrera y lucha de clases ayer y hoy”. Mañana 4 de marzo tiene previsto, además, llevar a cabo en el centro cívico Aldabe de Gasteiz a las 18:30 una charla entorno al papel desempeñado por la mujer trabajadora el 3 de marzo.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eusk-cast-martxoaren-3aren-hitzaldia